EGUNEKUA

JOSU'REN BIJOTZA

Gaurko eguna, kistarен aŕtian aundikiro ospatzen dan eguna da; Josu'ren Bijotz Deunaren eguna.

Josu'ren Bijotza maŕasun-Bijotza da-ta, maŕasun-egaŕi garanok, maŕasun-iŕuŕirantz egin biar gara; Josu Beŕ-Beraren Bijotzera.

Eta gauŕko egun au, beste egunak baño aintzagaŕijagua ixan biaŕ jaku, beste egunak baño ospatubago egin biaŕ dogu.

Josu'ren Bijotz maŕalia, geure bijotzetara datoŕ, geu maŕatutera jatoŕku. Beraz geuk be aŕera ona egin biaŕ dautsagu.

Geure etxiak, iñoz baño garbijaguak dirala erakutsiko dautsaguz Etxietako leyo-txeiguak, geuri begikuen jakuzan euzko-ikuŕin edeŕakaz apainduko doguz, eta Josu'ri be begiko jakezan euzko-ikuŕiez apainduriko leyo-txeiguetatik Bere eskaŕ doma guganatukо da.

Josu'ren Bijotz Deunak gixaŕteko gentrea gura dau; anayen aŕteko maŕasuna: Berak geuretzako emon euskuzan gauza gustijak abegi onez aŕtuta zaindututia.

Josu altsuba ta on utza da-ta, gauza okeŕik ezin daike egin. Euzkadi euzkotaŕon abeŕitzat egin ebanian be, Josu zuzen eguan; okeŕ dagozanak beste batzuk dira; Euzkadi euzkotaŕon abeŕitzat ezagutu gura eztabenak; abeŕtzaletasuna, obena dala diñuenak; Euzko-Araudija'ren auŕka jagi diranak; euzko - abeŕtzaliak, ziñausliak, uŕtzingiak dirala diñuenak, euzkerea ostikoperatuta eŕdereari indaŕ dagitsen euzkotaŕak. Oneik gustijok dira txaŕto dagozanak. Josu, ez. Josu'ren Bijotza maŕasun utza da, eta sendikuak sendikuetara, maŕasun-lokiz lotuta batu gura gauz. Euzkotaŕon etxia Euzkadi dala diñosku, ba, Josu'k, eta etxe au, Berak geuretzako emoniko etxia dalako, maŕe ixan biaŕ dogula.

卐 卐 卐

Gauŕ, irakuŕle, Josu'ren Bijotz Deunaren eguna dozu, ta Josu'ren Bijotzak zure etxia ikeŕtuko dau. Maŕasuna bera dan Bijotz oŕek, zure etxian ez al dau ixango bekozko ilunik. Josu garbi-ereduba da-ta, zure etxia be garbi idoroko al dau; zure leyo-txeiguak euzko-kuŕiñez apainduta.

Eta Josu'k onetara idoroten dauzan etxiak onetsi egingo dauz, eta euzkotaŕon bijotzetan iraŕiŕa geratuko diran itzak onexek ixango dira:

"¡Gora Josu'ren Bijotz Deuna!" "¡Gora Euzkadi!".

GURE ALDIZKINGIJAK

"Karmen'go Argia":

Illa oni jaokan zenbakija, jaso dogu, ta beti lez oleŕki ta enparauko irakuŕgai edeŕak dakaz. Ona emen izpijuŕa:

"Jesus'en Biotza, Teresatxo Deuna, Aur eingea, (olerkia), Egi biribilak, Praga'ko Ume Jesus, Sentauna, Karmen'go Ama, Adarduη eta bustandun, Jesus'en Biotzari agur, Ikusi ta ikasi, Bizkai'ko zaindaria, Urkiola'ra (oleŕkia), Baseŕi gaiak, Izaŕen gora-berak, Lutelesti g a y a k, Karmeldar edestia.

IRUDIAK

Jesus'en biotza, Teresatxo deuna, Beŕiotxoaren aita, Beŕiotxoaren ama.

LAŕAZABAL'GO ITZALDIJA

Gauŕ gabeko zortziretan Euzko-Gastedi jaun beñola Sabin'ek adizkide batzubei Laŕazabal'en egin eutsen itzaldija ixango da Itzaldijaren ondoren, Egileor'taŕ Imanol akiñak eta euzko abeŕtzale zintzuak itzaldi aren azalpena egingo dau.

Eta gero, Laŕazabal'en apari-iskitxu bat ixango da.

Aldozubenok juan, ba, Irakasliaren gomutaz egiten dana Abeŕijaren onerako da-ta.

URIBITAŕTE'TAŕ IBON.

Matiko'ko Euzkel-Irakastoleak

Batzoki onetan eraldu ziran euzkel-irakastoleak, arañegun, oŕila'n 31'gaŕenan amaiu ziran. Ogetabost emakume ta gixonezkuak ekin dautsoe egunian-egunian euzkerea ikasten; benetako lan aztuna ixan da, baña euren abeŕtzaletasunetik ori eta geyago itxaron legike, ostantzian, ¿zelan asiko ete-ziran euzkerea ikasten abeŕtzaliak ixan ezpa-ziran? Abeŕijaren didaŕa entzun ebenako, sendo jardun dabe, ta uŕengo uŕtean sendiago jaŕaitzeko ustia dabe.

Ona emen euren ixen-abixenak. Alonso eta Ololo'taŕ Pele, Yangez eta Iturbe'taŕ Lokarne, Yangez eta Iturbe'taŕ Jule, Egaña eta Matxain'daŕ Elene, Bidoŕeta eta Gorostidi'taŕ Pilare, Heras eta Jofre'taŕ Elbire, Aŕieta eta Beaskoetxea'taŕ Benantze, Aŕieta eta Beaskoetxea'taŕ Godalope, Salinz'taŕ Paltzide, Maŕia eta Madariaga'taŕ Elbire, Matia eta Madariaga'taŕ Eskaŕne, Gorostidi eta R. Samaniego'taŕ Lonore, Gorostidi eta R. Samaniego'taŕ Elixabete, Ibañez de Bilbao'taŕ Sorne, Omaetxeabaŕia eta Urtiaga'taŕ Libe, Omaetxeabaŕia eta Urtiaga'taŕ Miren, Omaetxebaŕia eta Urtiaga'taŕ Seberiñe, Omaetxebaŕia eta Urtiaga'taŕ Eukeni, Omaetxebaŕia eta Urtiaga'taŕ Sabin (bost neba-aŕeba batera), Berasola eta Saltzedo'taŕ Eladi, Eŕetzola eta Beratza'taŕ Julen, Perez eta Goiri'taŕ Bingen, Anasagasti eta Ernani'taŕ Imanol, Sainz eta Oyarzabal'daŕ Alberta, Goiriastuena eta Esturo'taŕ Joseba.

Aŕtu egixuez zorijonik beruenak; zuek aŕte Euzkadi geure abeŕijaren semerik kutunenak, zuen buruak euzkeldunduten asi zaŕielako, eta ez-itxi bide ori, zuen bixitzako izketa bakaŕa euzkerea ixan-arte. Baiezkixube gatxa eztala; ikasi eziña eztala ba, zuek ikasketarako geŕturik egon etzaŕien-aŕen, jamaika gauz adiraldu dozubez, egunero ekin eta ekin, abeŕtzaletasuna bultzuta.

Zorijonak emon biaŕ yakez batzokiko batzkintza aŕtezkarijari, euren alegin gustijaz irakastoleak batzokijan geŕtau ebenjako, geure elia gorengo malan gelditu daŕien. Auxe da euzko-batzokijetan egin biaŕ dan lanik lenenguena, abeŕtzale gustijak euzkeldunduteko, olan oinkadarik luzieua emongo dogu abeŕija gaizkatuteko.

BATZALDEKO.

Aranburu'tar R.
AZAL ETA TXIZ-BIDIAK
Fueros, 5, 3.° DONOSTIA

ETXE TA LURR SALDU-EROSTIA
Etxien-gain diru arrtu-emotia
INTXAURRAGA'tarr P.
Bilbao-Bailen, 3-2'g. 11.685 urrutiak

AZALPENAK

JOSU'REN BIJOTZA



Josu'ren Bijotzaganako maŕasunak ikutu dauz geure eŕijak. Begijetan Goikuak garabiltzala dirudi, geutaŕa zalako ludijon. France-ostian, bere agerkundia Bijotz deun oŕek egin eutsona.

Kardaberatz Josulauna, euzkel-idazle jatoŕa zan eta bere idaztijak oso goratubak doguz. Bere abotik entzuna dogu: "Jaun-Goikuak nai du euzkerak burua jasotzea". Euzkadi'ko alde gustijetan ibili zan. Ona eŕi bakotxetik zer idazten eban. Gai onetzaz Agiŕe'taŕ Goŕka abeak idatzi dausku edeŕki. Aren lanatik aterako doguz gai berexijenak

"Mungia'ra eŕitaŕ gustiak eta beste zortzi eŕitakuak euren Abade jaunak buruditutztela, ekaŕi diŭ Jesus'en Biotz eguneau Biotz onetzaz egin nuan itzaldia, eta oso beroturik gelditu ziran entzunle guztiak Biotz maiteaganako maitasun gaŕetan. Aspertu gabe dabiltza Bazkuna egin dezadala eskatzen."

ELGOIBAR

"Jauna saŕitan artzeko oso nagi ta zaoar zeuden Elgoibar'taŕ auek (beste urietakoak ere ala zeuden garai ayetan) baña agertu nien Jesus'en Biotzkoitasuna ta esan nien Biotz maitagaŕiari atsegiñ egiteko biderik onen onenetakoa dala, Jauna saŕitan artzea; beŕitu genduan Kristo'ren Irakaskintza (Escuela de Cristo) eta oraiñ jaso Jesus'en Biotzaganaturik daude. Sartu da eŕian saŕi Jauna artzeko oitura, ta Elgoibar'taŕen ikasbide onak alderdi guzietan baŕeatzen ari diira. Jesus gure maitearen Biotzari aldare beŕi bat egin diote Ebanjelio aldean. Irudia Margarita (Deuna)'ren bizitzan dagon bezelakoa da, ta gañean IHS dauka; beraz. Biotzarena ta Jesus'ena. Bero bero diraute emen Jesus'en Biotza maitatzen eta goratzen."

Bilbao uri onetan Josu-Bijotza'ren oindija iragi eben beste iñun baño lenago. Bakio, Elorio, Oñate, Eibaŕ eta eri geyenetan oneraspen au zabaldu zan beriala.

Kardaberatz abearen eskutitzetan onetzaz gauza andijak irakuŕi dagikeguz. Orduban erein zan azijak, gaur sustrai sakonak daukoz.

Zaide gustijetan, etxe geyenatan gaur ikusiko doguz ikuŕiñak eta jai-egingo dabe geure abeŕkidiak.

¿Euzko etxerik-ete da Kisto'ren Bijotza bakaldun eztala? Bere maŕasunak ate orotan aurkitu dau aŕera onena.

¡Jauna, erdu geure abeŕira, onetsi egixuz geure etxiak eta geure lanak! Zeure ixena onetsija bedi ta euzko-semiak zeure bidietatik bebiltz, orixe ikasi geban, ba, Irakasliarengandik be-ta.

Maŕasuna darijozu zeure Bijotz Donetik, ortxe begoz geure giriñak eta lerak. Abeŕi onen gurarik gustijak zeuk beteko dozuz. Euzkadi'ko zaindari bakaŕa zadi.

JOSU'REN BIJOTZARI

Josu'ren Bijotz gozo-gozua,
maŕe zaŭunen
zoruna.
Oŕtxe baŕuban saŕtu egixu
ene bijotz ain
iŭuna.

Ludi negaŕtsu zirtzil ontan,
arantza aŕtian
loreak.
Zure Bijotzan gozotzen dira
miñez dagozan
goguak.

Laŕosa edeŕ zuri-goŕija,
bijotz odolaz
soŕtuba.
Gau iluneko neke aruan
miñaren-miñaz
loŕtuba.

Eguzki-izpi aŕgi-edeŕak,
laño ilunak
uxatu.
Oben doloŕen oŕban ezaña
maŕetasunak
gaŕbiŭu.

Ludiko sakon ilun ontatik,
aingeru egoz
banua.
Maŕasunaren indaŕ altsuak
zeure ondora
narua.

Zitori zuri txukun-txukuna,
zure onduan
ezerez.
Ene bijotztxu txiki apala
zu goratzeko
gauza ez.

Kedatz luŕunen usain gozuak,
gogua dauste
alaŭ.
Josu onaren Bijotz gozua
bijotzez gurot
goratu.

MAÑARIKO.

MARTIKORENA
Bekiyeta'ko gaixoen zendagillea
Garibay, 13 bis, 2.°. DONOSTIA.

ALDE GUSTIJETAKO IZPARRAK

Amabost egunotan, Bilbao'ko abere-ildegijan, 414 idi ta bei il dira Eŕaldiak 58 ·12 68 eŕial egin dau.

822 txal, 70 eta 82 eŕial eŕaldia.

Txaŕijak askotxu il dabez: 414; aneukijan ordainduten ixan da 30 eta 27 txakuŕ Aŕkume moltsua be eldu da: 2.642 gustitan. 21 eta 25 txakuŕ aneukija. Abere-goŕi edeŕañ ikusten doguz. Baña beŕtokuak aña dira eŕbestekuak be. Bijen aŕtian guduketa gogoŕa dabil. Olako abeŕiak ikustan iñun eztagola goserik esan geinke, baña baseŕitaŕen galtzori dira abere oneik.

Eztakit iñoz amaŭuko diran baseŕitaŕen nekiak. Beti txaŕto egon biaŕian dago-edo.

Txakuŕ-Zale.

MADRID

"El Liberal" izpaŕingijak cataluñataŕen Araudijatzaz idazten dau, eta anek auŕerantzik egin eztagijantzat zoztoŕak bideŕdiratutia, suagalarijak auŕka ataratia dala diño.

Lateŕi-gudaren batek urtetan ezpa-dau baña, bakaldaŕen asmu zitalok iñoz be eztirala loratuko epaŭuten dau gero.

Oraingo eŕijen eretxija, 1898'ko Cadiz'ko Marchia'ren aldiko abeŕtzalekerijen antzekua eztala diño, eta Latetxia Eŕkala'ren aldeztzale sendua dala.

Eta geruago lugin-arazuari oratuta, baŕitze oŕen auŕka iñor jagi leikenik eztabela uste esaten dau.

Jaurbidiak asmu au beretzakotuta dauko la diño, "Gaceta,,'ra eruateko autaŕkijak laŕegi be ixango dauzala-ta.

Aurkalarijak asmuak onduten alegindu biaŕ litzakezala, diño, eta España'rentzat osasuna diran egin biaŕetan Jaurbidiari lagunduten.

"A B C"

Izpaŕingi au egunotako matxiñadatzaz jarduten da, eta nagusi-kaltezko eraltzalak gerokuentzat itxiriko oroimenetan dagola diño, U. G. T.'ek eskatu eban laguntasuna

Eŕijak artegatu ta gogatu eragiŕe au, 1930'gaŕenan be jaditxi ebela esaten dau, eta orduban matxiñadearen alde egiten ebenak dirala gauŕ minduben egiten diranak

"AHORA"

Azaña eta Prieto'ren arteko eretxi bardingetasunatzaz Jaurbide-arerijuak esan dabenak gaŕantzirik eztaula diño, eta emetik Jaurbidiak zatitzerik ixango dabenik eztau uste.

Araudija danai alkaŕ-aturazoko dauskuna ixango dala diño, bilduŕ-susmo gustijak kenduko dauzana, eta eŕiketa aldaketa gustijen ganetik jaokan lekutik iñork eraingetente ta sendo iraungo dabena.

DONOSTIA

Izpaŕik jakingaŕijena, gaurkotz, eibartar baten jazokuna dogu. Paris'en bitxisalokijaren jaube zan Aranbaŕi eta Malabiabaŕena'taŕ Karla. France'n bixi-ixan da aspaldijon eta bitxijetzazko salerosketan ibili zan. Orain lepalduten dautsoe 4.800.000 pantzetaŕ txindijetzazko lapuŕketa. Eŕtzañak diñuenez ondo esiŭa gordetako lapuŕ au entzun dabe.

PARIS

Etiopia'ko jauflari-lagunak atxilotu dau Gojan erkiko bakalduna dan Ras Hailoy. Jaun onek izkilubak sartzen ei-dauz laterira agintari nausijen baimen-barik.

LISBOA

Lenengoz iŕati-uŕutizkiñetzazko batzaŕa egin da Lisboa'n. Batzaŕkide asko batu dira, gustitan, ba, 1.200 ziran. Datoŕken udazkenan bigaŕena osatuko dabe.

ARAUDIJETZAZKO ZABALKUNDIA

Gazteiz'ko goteŕkiko gotzain - ordezkuak idazti edeŕa zabaldu dau Araudijetzaz "La Constancia" izpaŕingijak ezin autaŕkirik emon legikijola araudi oni azalduten eban, baña Eguren jaunaren ustez katolikubak oben-laŕiren bilduŕke autarkija emon dagikije.

Zabalkunderako batzaŕ andijak egiten asi dira alde gustijetan. Markiña ingurutik azaldu dabe eurek gogoz eutsiko dautsoela araudi oni.

Bultzijak, tximist-burdijak, iŕasoyak, belbilak eta abaŕ ontzat aŕtuko dira Euzko-Araudijanen zabalkundia egiteko.

MADRID

Osasunatzazko arazo-zaindarija dan Pascua jauna, Osalari-Bazkuneko lendakari aukeratu gura-ixan dabe, baña beste eskumataŕ batek kendu dautso tokija. Osasunatzazko arazuak alde-batera utziko ebazalakua baŕeyatu dabe, baña olakorik egiteko ez ei-dago. Osalari-Bazkunen politikarik egiten ba-da zigortauko dauzala gustijak diño.

CORDOBA

España'ko eguneroko ogija sutotsak dira. Ezkeŕtaŕak edo eskumataŕak, beti alkaŕen auŕka dabiltz. San Roque urikuak, deunaren jaŕatzaliak eztira-edo, txapel-okeŕen goŕ otoz talketa bat egin dabe. Txapel-okeŕak be eskubak ezebezan sakelean gorde ta ainbat zauriŭta geratu dira.

Lee EUZKADI y dalo a leer a tus amigos y familiares, para que todos conozcan a su Patria y la amen.

ERRIJETATIK

MUNDAKA

ITXAŕIK.—Beñola ametsetan ikusiko tantai ekaŕkoŕak baŕiro dakaŕtzubedaz gogora. Ikusi gebazan basetxe-auŕian "Jelsagaŕa", "Sabin-intxauŕa", "Abeŕi-zugatza" eta abaŕ. ¿Gaŕantzi aundirik ete-dau beroŕek? Bayetz deritxat. ¿Zergaŕik? Umetxuentzako batez be, ezlari-gai egikoŕa ixango litzakelako abeŕi-maŕetasunan, baña, urte gitxi baŕu, dirutza poliŕa batzeko be endeŕi-ondasuna eratu dadintzat. ¿Zelan loŕtu daikegu? Ain-arin ez, baña eŕez. Badakit orain oldozkun eta guramen gustijak Euzko-Araudijan doguzala; baña beroi laga barik zeozertxu egin geinke.

Beñipein Euzko Idazkaltza Burubak, oneskaŕi ba-deritxo Euzkadi'ko Uri-Buru-Batzaŕ gustijai asmo au iŭundu dagikejoe, lugiñ edo barazai bazkide-aŕtian zabaldu dagijen, baña geŭ legikijezala sabiŭegi edo "vivero" txiki batzuk eŕi-alde bakotxean, eŕezago banandu daŕekezan tantayok.

¿Ixango ete-da abeŕtzalerik ain begiko tantayok landatuten ukatuto daunik? Ez uste. Dana-dala geŕtu dagozanai biaŕ-biaŕekua da iŭundazotia euren zaipe, batxe ta igalijen sarija uri-buru-batzaŕetan emotia gastetxuben ardura berezija dala; irakaspen au onenetarikua ixango yakielako.

Mendigoxaliak be, basetxietatik saŕi dabiltz eta, asko egin legikije asmu onen alde. Azkenez euzko-irakasliak eta abeŕtzale orok emen dozube abeŕi-lan edeŕa.

KEPATXU.

LARRABETZUA

ABEŕTZALIAI.—Abeŕtzaliak, ikusi dozube, ba, aspaldijon zelako lan ugarijak egiten diŭzan gure Batzokijak, itzaldi edeŕakaz, antzeŕki-jayakaz eta abaŕ, eta ondiño asko zagoze bazkide-egin barik. Ezta naikua abeŕtzalia ixatia, abeŕtzale eztiranak abeŕtzaletuten alengindu biaŕ da-ta.

ABEŕTZALE ESTIRANAI

¿Geure anaya maŭia
ondiño etzara gogoratu?
Laŕabetzutaŕa bazara
euzkotaŕa zara zu.

Euzkotaŕa zaranezkero,
Amea Euzkadi dozu.
Eta ama ori espetxian
auŕkitzen yatzu.

Etxe oŕetatik atarateko
alengindu biaŕ zara:
¿Nogaŭik egin leike
amagaŭik ezpa-da?

"TXIŕI'RI".—Adizkide maŕe uste neban oinguan il-ziñala baña gogoŕ zabiltz Lezama-aldeti. Gaŕ andija dago eŕionetan orko Batzokija'ren zabalkunderako, emeko antxezlari-taldiak esan dauste oŕ jai bat emongo leukela zeuek nai izan ezkero-ta.

ABEŕI-EGUNA.—Eldu jaku aldizkingijau, ta edeŕto apaindute eldu be. Aŕapaladan eruan diŭez gustijak; baten bat balego aŕtu gura leukela, Batzoki'ra eskatu dayela.

NASKALDIJA.—Alditxu bat etxian gexorik eginda agertu yaku gure goiko ikastolako irakaslea dan Garbizu'taŕ Pantzeske. Asko poztuten gara.

Igazi dan igandian Miren Deunaren eŕtxadonan entzun doguz gure lagun abeŕtzale dan Ereño'taŕ Andoni eta E. A.-B.'ko Ormaetxe'taŕ Josebe'ren ezkon-deyak, baña Uriarte'taŕ Ander eta Dañobeitia'taŕ Miren'enak be. Zorijonak danoi.

LUGIÑAK.—Lengo igande zortzi Ixidor Deuna dala-ta jai edeŕa ospatu eben. Goxerik txistularijak kale-bira batzik jo euskubezan, jaupa nagosija txonitz edeŕagaz eta abaŕ, baña auŕten lugin gustijai atsegin ixango yaken ibiltaldija eztautse eragin. Onaño be oingo lagi baŕija elduda uŕian.

URITAŕ-BAT.

AZPEITIA

EUZKEL-IZENA.—Azkune'taŕ Benantzi aberkide zintzoaren emazte Lasa'taŕ Terese'k izan duan semetxoa'ri Iñaki euzkel-izena ezaŕi diote. Aita-amabitxi Azkune'taŕ Peliken ta Lasa'taŕ Pele izan ziran. Ama-semiak onik dagozte. Ar itzatzue nere zorionak.

ERIOTZA.—Gaxotasun luze baten ondoren il da Eskuŕa'taŕ Bitore andere ezaguna(G. B.). Gorputz obiraltze ta gañerako-txadonkizunetara notin asko bildu da. Aren senditaŕai laguntzen diogu atsekabe gaŕatz oŕetan ta irakurleai otoibana daskayogu zanaren gogo-aldez.

AZKOITI'RA.—Gauz Yosu Biotz Deuna'ren egunez antzerki jai bat izango da Azkoiti albo-eŕiko Olinpia antzokian. Batzoki'ko antzezlari trebe ta txalotuak "Abaroa ta babesa" iru ataldun antzerki edeŕa antzeztuko dute.

Aŕatsaldeko sei ta erdietan asi ta bederatzietako amaitzeko eran emango da antzerki jaya.

¡Azpeitiaŕak! Antzerki edeŕ bat ikusi nai badezute jun zaitezte gauz Azkoiti'ko Olinpia antzokira.

ERMUA TA MARKIÑA'RA.—Eŕi abetako anai abeŕtzaliak datoŕen igandean eratzen dituzten jai aberkoyetara juateko gaŕ bizia nabaitzen da emengo abeŕtzalien artean.

Bi eŕi oyetara juan nai izan aŕen asko'k ezin beteko dute euren naya nola ta erdibitzen ez dira. Guk aldegunea juan biaŕko degu beintzat.

EZKON-IBILALDITIK — Etoŕi dira Zubeldia'taŕ Nikol ta Odriozola'taŕ Miren ezkon-beŕi ezagunak. Beŕitzen dizkiogu len emandako zorionak.

AZPEITIA'KO EUZKO-ETXEA'REN ZABALKUNDEA.—Galdera asko dagizkigu erbesteko abeŕtzaleak jai oyetzaz.

Lefo aben bidez adierazten diogu guziai Garagaŕila'ren 12 gaŕen eguna dala jai oyek ospatzeko izendatua ta euren - egitarauak biali ditugula Batzoki geyenetara.

Oraindik artu ez dituztenai bereala igoŕko dizkiogu. Dakusgun ta dantzugunez egun oŕetan Euzkadi'ko baztеŕ eskutuenetatik ere ordezkariak etoŕiko dirala esandesakegu. Yaŕaiko degu zertzelada guzuk adierazten.

KIROL.

LEGAZPIA

GORPUZTI.—Gorpuzti-eguna egun eurtsuba izan gendun, eta otza ere bai.

Egunari zegokiyonez askon izan ziran beren goguaz bat soin edo gorputza sendotu zutenak Oteunaz alegiya.

Jaupa-nagusi edo amaŕetako mezan iñoiz ez bezelako notintza izan zan. Ibildeuna Txadon-ataŕte edo elizpetik egin zan.

Aŕatsaldian Oñati'ko jayak zirala-ta askoak bertaratu ziran. Izan ere, gure gasteok... nun gogoa, an zankoa.

EUZKO-ARAUDIYA.—Euzko - Araudi-aldez abeŕtzaleak lan egin dezatela nai ba-dute Guk oŕen beaŕik eztegu. ¿Ez e? egon zadi oŕetan, "Praixko Antonio", baña guk dakaŕgunean eta bere on-egiña nabaitzen edo igaŕtzen dezun egunean ez esan gero, "ni oyek bezin euzkeldun ona izateko eztet ezen beaŕik". ¿Edo, nik zer egin det ba, "fuerista" ona enaizela esateko?

"LA CONSTANCIA". — "El Día,,'n dirakuŕkegunez (irakuŕtzen degunez) Donostia'ko "La Constancia" ibai'ra bota omen dute Azpeitia'n. Eta Zestona ta Zumaya'n uste det, eŕe.

Tamalgaŕiya da benetan gauza oek gertau beaŕa, baña "La Constancia,,'k darabilen lana Euzko-Araudi auŕka, ezta makala izan ere-ta...

"La Constancia,,'k Jaun-Goikua eta Lagi-Zaŕa maŕe ere maŕe omen diŭ. ¿Zeri begira ete-dabil bada, "La Constancia" Euzkel-Ataltxu bat bederik ezaŕi bage bere izpaŕingi oŕi? ¿Bilduŕ ete-da "ango" irakuŕliak iges egingo ete-diyoten? ¿Ala, euzko-irakuŕliak gutxituko ete-diran, bilduŕ? ¡Batek ba'daki!

ZAŕ-ZALE.

MUNGIA

JAUPA BAŕIJA. — Gangoiti'taŕ Pantzeska emengo "Uriarte" basetxeko semiak, igazi dan igandian abestu eban lenengo mesa-baŕija. Txonitza edeŕto egin eban jaupari baŕijaren lengusu, lekaide b a t e k "Ageŕe" basetxeko semiak.

Ondiko aŭabitxi Uŕutia'taŕ Ixaka Julen, Bermeo'ko txaunburu lagun eta eŕitaŕak Gangoiti'taŕ Diburtzi ta emaztia.

Perosi'ren bigaŕen "Pontifical" - mezea abestu eben edeŕto, gustiz edeŕto, ertxadoneko abespatzak. ¡Mutilak dira, ba, eurak abestuten!

Jaupari baŕijari ta bere sendi on-onarzorijonak Goiko Jaun onak bemoyo Goi-eskaŕ ugariak Euzkadi'ko belgundari zintzua izan daŭen.

Bederatziŭŕena.—Itzaldiak Aba erbesteko batek egingo dauz.

Beste urtietan asko ixaten ba-ziran eleizkizun onetara etorten ziranak, aurten geyago ixan biaŕ dira, premiñak be aundijaguak dira-ta; guda, gose, gexo... gaiztakeri... nok gomutau be egin leiz gero zein, bategiño diran eurok? Arimak ta gorputzeko gatxak aldendu dagixala gugandik, geure Abeŕi maŕe onetatik, Josu'ren Bijotz onari, gogotsu eta apal-apal eskatu dayogun.

JUAN-ETOŕIJAK. — Areatza, (Villaro'ra) juan da Ateka'taŕ Josebe andra euzkeltzale ta Jainkotija.

Marsela'ra egun batzubetarako Aŕuza-Zabala'taŕ Biŭoriñe anderea.

Bilbao'tik etoŕi da Ateka'taŕ Miren Madalen anderaño gastia.

Gazteiz'tik etoŕi dira, emen udea igaroten Mentxaka'taŕ Kepa, "kanonigu" jaun agurgaŕijaren ama ta aŕeba Kaulde anderea.

Bilbao'tik baŕa Lona'ren alarguna bere alabakaz.

Ezkon-ibiltaldija egin da biuŕtu dira Goikoetxe'ko abi baŕira Iturегi'taŕ Kasiene ta Uŕutia'taŕ Josu senar-emazte ezkon-baŕijak. Uŕte askotako osasuna ta zorijona opa dautzubedaz.

¡KONTUZ UMIAK!. — Elgezabal'daŕ Josebatxu mutikotxuba igazi dan igandian belbil bat jo ta zauritu eban bekokian. Eraña ta bizkoŕ-bizkoŕa da "Kose-Apalado" mutikotxuba, baña azkenian... ¡atrapau!

¡Kontuz umiak, ez ibili bitxabal erdijan!

MAŕE.

LEMONA'TIK

Eŕi onetatik ezertxu be iñok eztabela idazten ikusiŭa, oŕ juatzubez nire lenengoko iŕibоŕo batzuk.

EGURALDIJA.—Oŕila amaŭu danaŕen, ondiño eguraldi onak ikusteko gagoz. Eta txaŕena dana, artuak erein barik eta noizik doizera eduŕa jausten be ikusi egiten dogu. Eguraldijok ontzen ezpa-dauz, eztakigu aŕtuak eta indabeak noiz ereingo doguzan.

EMENGO IGANDIAK. — Igandietan orain danboliña ixaten dogu emen, baña gastiak lotsaz beterik egoten dira beŕtan dantzan egiteko. Beste naste-boŕasteko soñubetan dantzatzeko baña eztabe lotsarik ixaten.

Danboliñian dantzan egiten lotsa ixan eta beste soñubetan lotsabarik dantzatzen diran abeŕtzaliak baña eztira abeŕtzaliak, benetako abeŕtzaliak esan gura dot. Ez lotsarik ixan, ba, danbolin-soñuban dantzan egiteko, Euzkadi azkatutia gura ba-da, oŭura onak zabaldu egin biaŕ dabe-ta.

BATZOKIJA'REN ZABALKUNDIA. Batzokija'ren zabalkundia be lasteŕ ixango da, eta orduban euzko-jai edeŕan ixango dira. Egun oŕetan, ezpatadantzarijak, txistularijak, eresijak eta izlarijak, danak ikusiko doguz eŕi onetan-eta.

Eta gauŕko naikua da. Aguŕ.

GUZUŕTI.

LEZAMA

NASKALDIJA. — Eŕi onetan aguŕtau doguz Ereño'taŕ Mikel eta Aretxaga'taŕ Ebaista, Laŕabetzu'ko endore eta ziñegotzi abeŕtzaliak.

ELIZKIXUNAK.—Gustiz andikiro ospatu dira Gorpuzti eguna eta sortzigaŕen igandia, geure eŕtxadonan.

AZOKA.—Geure eŕijan igande-goiz gustijetan eukitsen dogu txaŕi azoka edo meŕkatua. Gure baseŕitaŕari saŕitan kentzen dautsoe buruko miña euren-bila beste eŕi batera juan-barik bertora ekaŕijagaz.

GABA GABEKUNTZAT.—Geure eŕitxuban aspaldi onetan saŕitxutan daukaguz oŕeik maŕaskiluan antzera euren etxia beti aldijan darabilden "bolatiñeruak". Endore jauna, ¿ze irabaste dauko gure eŕijak eta beste notiñak batez bere gastijak oŕek emoten dauskubezan irakatsijakaz?

EMAKUME ABEŕTZALE-BATZA.—Emakume gustijen aŕtian beti ixan oi-dau alaŭasun edeŕagaz batu ziran neskatila talde edeŕa igande aŕatsaldian geure jel-batzoki'ko aretuan E. A.-B. bazkuna atonduteko.

Edeŕki emakumiak, oŕ autu dozuben batzokijak uste dogu aldi gitxi baŕu batuko diŭzala beŕtoko emakume gustijak zuben ikuŕiñpian.

TXIŕI.

EUSKALTZALEAK

III certamen poético euskaldun

DIA DE LA POESIA VASCA EN ERNANI

Ernani, del 6 al 7 de agosto de 1932.

EN HONOR DEL FABULISTA ITURRIAGA

Clasificación I.—Premio de honor. Ramo de roble, en plata, sobre estuche de cuero.

Poesía de cualquier género literario y asunto libre.

Clasificación II.—Premio de 500 pesetas.

Pequeño poema de carácter épico sobre hechos históricos, legendarios o de personajes vascos. Pueden utilizarse como asunto hechos conocidos y divulgados en el pueblo. La finalidad de esta clasificación no es sino la de despertar en el pueblo un sentimiento poético de cierta altura. Procúrese, por lo tanto, que sean fácilmente adoptables a las melodías de los bersolaris, aunque de inspiración más cuidada que la de éstos, desde luego. Aunque breve, ha de tener una extensión razonable.

Clasificación III.—Cuatro premios: de 100, 75, 50 y 25 pesetas.

Colecciones de poesías populares. Es *indispensable* que estas poesías sean *rigurosamente* populares, que las use o las haya usado antes el pueblo, *sin cambiar una sola palabra*, por muy erdérica que sea. Hágase constar el pueblo y la persona de quien se ha recogido. Estas poesías pueden ser de las llamadas de ronda, v. g.: *Olentzero, Urtezar, Urteberri, Santa Agueda, San Nicolás*, etc., etc.; de fiestas populares como de bailes, hogueras, apuestas de hachas y carneros, leñadores, hilanderas, pescadores, etc.; religiosas, v. g.: Via Crucis, a la Virgen, a los Santos, al patrono del pueblo; satíritas, fábulas, etc. También podrán enviarse "bertso-berriak". A la mejor colección, de más de diez poesías, se otorgará el primer premio. El segundo, a la colección de cinco poesías. El tercero, a la de tres; y el cuarto, a la de una sola. La finalidad de este concurso es la de ir haciendo una gran colección de poesías populares. Obra eminentemente patriótica.

CONDICIONES.—1.ª Las poesías de la primera y tercera clasificacion deberán remitirse para el 31 de junio. Las de segunda, para el 30 del mismo mes.

DIRECCION: Señor secretario de Euskaltzaleak. Certamen Poético. Sociedad de Estudios Vascos. Palacio de la Diputación. Donostia.

OYERIA - PLATERIA
RELOJERIA
ARRIETA JOYERO
Bitxitegia - Zillartegia
GABEUKAZTEGIA
CONSTRUCCION Y REFORMA DE ALHAJAS
BITXIAK EGIN ETA BERRITZEN DITU
LEGAZPI, 10 - DONOSTIA - URRUTIZKIÑA, 13777

AGENCIA FUNERARIA DE LA SANTA CASA DE MISERICORDIA

✝

EL SEÑOR

Don Eduardo Alayo y Zuazo

(Q. E. P. D.)

Falleció ayer, 2 de junio de 1932, a los 47 años de edad

Habiendo recibido los Santos Sacramentos y la Bendición Apostólica de S. S

SU DESCONSOLADA ESPOSA, DOÑA FERMINA ELSA ORTEGA; PADRES POLITICOS, DON EUFRASIO ORTEGA Y DOÑA DOLORES PEINADO; HERMANOS, DOÑA ELVIRA, DON VICENTE Y DOÑA ESTEFANA; HERMANOS POLITICOS, TIOS, SOBRINOS, PRIMOS Y DEMAS PARIENTES,

SUPLICAN a sus amigos se sirvan encomendarle a Dios en sus oraciones y asistir a la conducción del cadáver, desde la casa mortuoria hasta la parroquia de San Francisco, para su traslación al cementerio de Vista Alegre, HOY, VIERNES, a las DOCE Y MEDIA del día, y MAÑANA, SABADO, 4 del corriente, a las NUEVE de la mañana, a los funerales que, en sufragio del alma del finado, se celebrarán en la iglesia parroquial de San Francisco de Asis.

El duelo se recibe: para la conducción del cadáver, en la casa mortuoria, calle del Licenciado Poza, número 46, principal, izquierda, y para los funerales, en la iglesia.

(No se reparten esquelas).